

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Behin betiko onestea Arasur plataforma logistikoko 6 superetxadiaren xehetasun azterketa

Udalbatzak, 2021eko azaroaren 8ko ohiko osoko bilkuran, ERABAKIA hartu zuen, zeinek xedapen zatian hau dioen:

Lehenengoa. Behin betiko onestea Arasur Plataforma Logistikoko 6 superetxadiaren xehetasun azterketa, Properties, SA merkataritza sozietateak sustatua eta Lks Krea enpresak idatzia. Azterlan horren xedea da eremuaren barnealdea antolatzea, gaur egun elkarren ondoan dauden bi lurzati osatua, eta bertan datuak prozesatzeko zentro baterako berariazko eraikuntza proiektu bakarra kokatzeari erantzutea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bat etorritik Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 89.5 artikuluan xedatutakoarekin.

Hirugarrena. Erabaki hau Properties SA merkataritza sozietateari eta interesatu guztiei jakinaraztea, eta adieraztea erabaki honen aurka, xedapen orokorra denez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 89.5 artikuluan xedatutakoarekin

Ribabellosa, 2021eko azaroaren 17a

Alkatea

MIREN SANTAMARÍA MARTÍNEZ